

Lingolang

HIZKUNTZA ANIZTASUNA ETA KULTURA ANIZTASUNA LANTZEKO WEB GUNEAK

1. Hizkuntza aniztasuna

HIZTEGITXOAK

Interneteko atari honek euskaratik beste hainbat hizkuntzetarako norabidean eta alderantziz, hainbat oinarrizko hiztegitxo lortzeko aukera eskaintzen du. Erabiltzaileak nahi duen hizkuntza hautatu eta momentu horretan euskara eta hizkuntza horren arteko oinarrizko hiztegi bat sortzen du datu baseak, esaterako, euskara eta bereberraren arteko hiztegia. Osotara 37 hizkuntza biltzen ditu webgune honek.

LINGUA MON

Linguamón – Hizkuntzen Etxea Kataluniako Generalitatek eta Bartzelonako Udalak osatutako gobernu-erakundea da. Hizkuntzen mundua herritarrengana hurbiltzea du helbura; gizarteari hizkuntza aberastasuna era positiboan ikusaraztea; hizkuntza aniztasuna iraunarazteko kontzientzia sortzea, eta hizkuntzek eta euren komunitateek eskaintzen dituzten aukera apartak zabaltzea. Web orri honetan hizkuntza aniztasunaren inguruko informazioa, eleaniztasuna kudeatzeko jardunbide egokiak eta baliabideak topatuko dituzu.

BERDE BERDEA: HIZKUNTZA EKOLOGIA

Kutxako Berde-berdea proiektuaren barnean, interneterako multimedia material hezigarria da. Hau du helburu nagusi: Munduko hizkuntzen aberastasuna azaldu, hizkuntza gutxituen inguruan, euskara barne, hausnartzea eta hizkuntzen arteko elkarbizitza bultzatu, horretarako, natura-ekologia abiapuntu duela. Lanaren oinarria 16 minutuko flash-film bat da, hiru zatitan banatzen dena: Munduko hizkuntzen aniztasuna; Euskal Herriko hizkuntza-aberastasuna eta norberak, zer?

Horrekin batera, hainbat jarduera eta baliabide eskaintzen ditu. DBHen lantzeko egokia.

Lingolang

ETHNOLOGUE

Ethnologue: Munduko Hizkuntzak ezagutzen diren munduko hizkuntza guztiak biltzen dituen web gunea da. Hizkuntzen eta hizkuntza bakoitza hitz egiten den herrialdeen inguruko informazio argia topatu dezakezue.

Oharra: Ingelesez bakarrik

ARRISKUAN DAUDEN MUNDUKO HIZKUNTZEN ATLASA

Unesco erakundeak lantzen duen atlas honen helburua da desagertzeko zorian dauden hizkuntzen inguruan atentzioa deitzea, politikarien, komunitate linguistikoaren eta, oro har, herritarren artean munduko hizkuntza aniztasuna babestearen aldeko jarrera hedatzea, eta munduan desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzekin eta aniztasun linguistikoarekin gertatzen dena azaltzea. Informazio oso erabilgarria ematen da atlasean. Modu interaktiboan, oso erraz lortu daiteke munduan zehar arriskuan dauden hizkuntzen egoerari buruzko informazioa.

Lingolang

2. Kultura aniztasuna

[HIPI WIKI](#)

Leioako Berritzeguneak sortutako wikia. Eskolan Kulturartekotasuna jorrazteko material ugari aurki dezakezue. Baliabide didaktikoak, harrera planak, ikastetxeetako esperientziak, ikus entzunezko baliabideak, jolasak, ikasleen prestakuntzarako artikuloak eta testuak, etab.

[MUGAK](#)

SOS Arrazakeria Gipuzkoaren immigrazioa, arrazakeria eta xenofobiari buruzko Dokumentazio Zentroa. Migrazioa eta aniztasunaren inguruko hedabideetan agertzen den informazioa sistematikoko jasotzen du eta ematen den irudiaren analisiak eskaintzen ditu web orri honek. Interesgarria gai hauen inguruan komunikabideen analisi kritikoa jorrazteko.

[HIZKUNTZA INDARTZEKO PORGRAMA ETA KULTURARTEKO HEZKUNTZA](#)

Blog honek G02 Berritzeguneko Hizkuntza Indartzeko Programako Irakasleen mintegian parte hartzen duten irakasleei berriak, intereseko baliabideen loturak eta haien artean komunikatzeko tresna eskaintzeko helburua du. Bertan kulturarteko hezkuntza jorrazteko sekuentzia didaktikoak topatuko dituzu.

[AULA INTERCULTURAL](#)

UGTko Irakaskuntza Federazioak sortutako web orria. Kulturartekotasuna jorrazteko baliabide didaktikoak eskaintzen ditu.

[EDUALTER](#)

Pakerako eta garapenerako hezkuntza eta kulturarteko hezkuntza lantzeko baliabide sarea. Bertan, eskolarako material didaktikoa, filmak lantzeko materiala eta gaiaren inguruko bibliografia anitza topatuko duzu.